

MIARRITZEKO MALANDAIN BALLET-aren LE LABORATOIRE DE RECHERCHE CHORÉGRAPHIQUE SANS FRONTIÈRES-ek ETA BILBOKO LA FUNDICIÓN-ek AURKEZTEN DUTE:

**REGARDS CROISÉS
MIRADAS CRUZADAS/ BEGIRADA GURUTZATUAK**

2013ko DEIALDIA,
Euskal Herriko dantza-konpainiei edota taldeei zuzendua

Proiektua hurrengo honetan datza, hots, lan hauen: saiakera ireki, tailer eta ikuskizunen aurkezpen orokorraren antolaketa.

Gaël Domenger-ek zuzenduriko Le Laboratoire Chorégraphique Sans Frontières-ek antolaturiko aurkezpenak eta tailerrak horizonte artistiko guztietako amateurrei, aurre-profesionalei, profesionalei destinatuturik egongo dira.

INFORMAZIO PRAKTIKOAK

- **REGARDS CROISÉS-ek** Miarritzen aurkeztu ahal izango ditu gehien ere 2 konpainia*, Le laboratoire de Recherche Chorégraphique Sans Frontières-ek aukeratuak.

- **REGARDS CROISÉS-ek** ordainduko ditu hautatutako konpainia bakoitzaren gastuak gehien ere 2.500 €-raino, i.v.a + ostatua barne (eta kasua denean dietak ere lagun-kopuruaren arabera).

- **Proposamenak urriaren 15eraino bidal daitezke hurrengo helbidera:** La Fundición : info@lafundicion.org

PARTE HARTZEEN PLANNINGA

2013ko otsailak 26, asteartea, 19:00etan. Tokiak zehatu gabe daude oraindik

- Konpainia bakoitzaren piezaren laburpenaren Saiakera irekia – Aurkezpena ikusleekin (30 minutu konpainiako).

- Lehenengo konpainiaren tailerra edo topaketa Laboratoire Chorégraphique Sans Frontières-eko kideekin (eta Gaël Domenger bere arduradunarekin) eta Dantzan Prestatzera etorri diren gainerako taldeekin.

2013ko otsailak 27, 20etan. Miarritzeko Théâtre du Colisée

- Lehenengo konpainiaren ikuskizuna

- Bigarren konpainiaren tailerra edo topaketa Laboratoire Chorégraphique Sans Frontières-eko kideekin (eta Gaël Domenger bere arduradunarekin) eta Dantzan Prestatzera etorri diren gainerako taldeekin. (Ordutegia zehaztu gabe)

2013ko otsailak 28, 20etan. Miarritzeko Théâtre du Colisée

- Bigarren konpainiaren ikuskizuna

2007tik, eta Interreg IV A Fondoaren laguntzarekin, Miarritzeko Centre Chorégraphique National Malandain Ballet-ek eta Donostiako Victoria Eugenia Teatroak dantzaren inguruko jarduerak garatzen dituzte Miarritzen eta Donostiaren artean. 2011n lankidetzaitun bat sinatu zuten Miarritze eta Donostia hirien artean, eta bide eman zioten horrela lehenengo Centre Chorégraphique Transfrontalier d'Europe: Ballet T-ri.

Proiektu berri honen markoan, Centre Chorégraphique Transfrontalier Ballet T-k lan koreografikoaren garapenaren alde egin nahi du lan, eta Miarrizetik irtenda, bere ekintza-eremua Euskal Herrira zabaltzeko: Bilboko Institut Français-aren ekimenez, martxan ipini zen 2012an La Fundación-ekin lankidetzaitun bat EAEko bi konpainia Miarritzen aurkezteko eta konpainia frantziar bat Bilbon*.



